

Prentsa-oharra

CENER eta IK4-TEKNIKERek beren aliantza berritu dute

- ▶▶ *Zentroek lankidetzak akordio berria sinatu dute energia berriztagarrien arloan teknologia berriak garatzeko eta aplikatzeko*
- ▶▶ *Aliantza honi esker, bi erakundeek 2009an hartutako konpromisoa berritu da*
- ▶▶ *Orain arte, akordioak aukera eman die teknologia berriak garatzeko, patenteak erregistratzeko eta biek batera nazioarteko proiektuetan parte hartzeko*

(Eibar, 2016eko abenduaren 1a).- Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalak (CENER) eta Euskadiko IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak lankidetzak akordioa sinatu dute aste honetan, energia berriztagarrien arloan, eta bereziki eguzki-energia termoelektrikoaren arloan, teknologia aurreratuak ikertzera eta garatzera zuzendutako proiektu bateratuak sustatzeko.

Hitzarmena Euskadiko zentro teknologikoaren egoitzan sinatu zuten IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusi Alejandro Bengoak eta CENEReko zuzendari nagusi Pablo Ayesak. Akordioaren arabera, bost urtez luzatuko da bi erakundeek 2009an hartutako konpromisoa.

Nahiz eta aliantza berriaren helburu nagusia eguzki-energiaren arloan ikertzea izan, beste energia-iturri berriztagarriek eskaintzen dituzten aukerak eta energia nola biltegitatu ere aztertuko dituzte.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, bi erakundeek I+Geko jardueretan sakontzen jarraituko dute, baita 2009an martxan jarritako nanoteknologia, mekatronika eta eguzki-energiako sistemak aplikatzen ere, besteak beste.

Zehazki, honako hauetan oinarritu dute zentroek bien arteko lankidetzak: eguzki-kolektoreen deskribapenean eta kalibrazio automatikoan, eguzki-energia termikoko kontzeptuen

garapenean eta kontzentrazioko eguzki-sistementzako sistema mekatronikoen garapenean (mekanika eta doitasun-kontrola).

“Aurreko hitzarmenaren mamia mantentzen da. Bi zentroyen teknologiak eta gaitasunak oso sinergikoak dira, beraz, horiek bateratzean aurrerapen teknologiko berriak lortzea espero dugu” baieztatu zuen Bengoak hitzarmena sinatu ondoren.

Horrez gain, ikerketa, garapen eta demostrazioko proiektuak sustatzeko eta hirugarrenei zerbitzu teknologikoa emateko konpromisoa nabarmentzen da hitzarmenean, betiere, berrikuntza-maila altuarekin eta garapen teknologiko nabariarekin.

“Ezinbestekoa da estrategia bateratua izatea, interes partikularretatik harago doana, honelako teknologiek lan egiten duten enpresen eta ikerketa-zentroyen lidergoa mantendu eta hobetzeko” azpimarratu zuen Pablo Ayesak, CENEReko zuzendari nagusiak.

Begien bistako emaitzak dituen aliantza

IK4-TEKNIKERen eta CENERen arteko lankidetzak lorpen esanguratsuak ekarri ditu azken urteotan, hala nola, tamaina txikiko heliostatoak garatzea, temperatura altuagoetarako kolektore zentralerako sistemak garatzea edo konfigurazio berriak CSP energiako instalazioetan, fresnel kontzentratzaile esferikoetan oinarrituak.

Bi zentroyek EASY proiektuan parte hartu dute. Horren bitartez, heliostato kontzeptu berria garatu da, merkeagoa dena eta erraz industrializa daitekeena. Konponbide horri esker, patente bateratuak eskatu ahal izan dira, eta zatikako finantzaketa lortu da STAGE-STE bezalako Europako proiektuen esparruan (Europar Batasunaren 7. Esparru Programa).

Horrez gain, **CAPTURE** (EBko H2020) ekimena bultzatu dute biek batera. Eguzki-energia termikoko instalazioen kontzeptu berritzailea garatzean oinarritzen da, ziklo konbinatu desakoplatuko dorre anitzekoa, eraginkortasun-maila altuagoa lortzeko.

Proiektu honetan, bai CENERek bai IK4-TEKNIKERek sisteman ezinbestekoak diren elementuak garatzen dituzte. Sistema hori ziklo konbinatu batean gas-turbina elikatzeko gai da, eguzki-energia kontzentratuaren bidez.

Bi erakundeen arteko lankidetzaren lorpen esanguratsua da baita ere **MOSAIC** (EBko H2020) proiektua. Horren helburua, eguzki-energia termikoko instalazio bat esfera anitzeko kontzentratzailekun teknologiarekin konfiguratzeko da.

EurosunMed (Europar Batasunaren 7. Esparru Programa) ere nabarmentzekoa da, energia fotovoltaikoko eta eguzki-argiaren kontzentrazioarako teknologiak garatzeko ekimena, alegia. Horrez gain, sare elektrikoak bateratu nahi ditu.

Proiektu horrek beste arlo batzuk biltzen ditu, hala nola, osagai berritzaileak probatzea eta EBren, Egiptoren eta Marokoren arteko lankidetzaren sareak sortzea. Horien bitartez, ikasleen eta ingeniarien trukeak egin litezke, eta proiektuaren emaitzak jakitera eman.

IK4-TEKNIKERek eta CENERek sinatutako akordioak lau patente bateratu erregistratzea ahalbidetu du. Eguzki-hargailu eta -kolektore berriak garatzera eta eguzki-energiako gainazal zabalen kalibrazio- eta karakterizazio-prozesuak hobetzera eta sinplifikatzera zuzenduta daude patenteak.

Halaber, artikulua bateratu ugari idatzi eta txostenak aurkeztu dituzte kongresu entzutetsuetan.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniariaritzak, produktu-ingeniariaritzak eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

CENERi buruz

Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalak (CENER) energia berriztagarriei buruzko ikerketa aplikatuak egiteaz gain, laguntza teknologikoa ematen die energiaren arloko enpresa eta erakundeei, baita nazioartean ere, sei lan-arlotan: haize-energia; eguzki-energia termikoa eta eguzki-energia fotovoltaikoa; biomasa; eraginkortasuna eta energia sortzea eraikinetan; eta hirigintza eta integrazioa energiaren sarean. Informazio gehiago: www.cener.com CENERek ADItch Korporazio Teknologikoan (www.aditechcorp.com) parte hartzen du.



Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel.: 637 273 728